

# **Gizarte Ekimeneko ehundik gora ordezkari mobilizatu dira gaur patronal nagusiaren aurrean 22-24 hitzarmena sinatzea exijitzeko**

## **Urte bete da Greba amaierako akordioa sinatu zela eta patronalen fede txar eta utzikeriaren ondorioz oraindik hitzarmenik gabe daude 9.000 langile**

Greba amaierako akordioa 2024ko otsailaren 5etik 6rako gauean sinatu zuten sindikatuak zein Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek. Urtebete pasa da akordioa sinatu zutenetik, eta hitzarmenik gabe jarraitzen dute sektoreko 9.000 langilek. Hau, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalen fede txarra eta utzikeriaren ondorioz.

Akordioaren zati batzuk betetzen ari dira ikastetxe batzuetan baina, hori bai, gai batzuetan soilik. Aplikatzeko moduak eta denborak adostu gabe halaber. Sindikatuak epaitegietara joatera behartu zituzten patronalek, sektoreko langileek adostutako soldata igoerak kobratu ahal izateko. EAeko Auzitegi Nagusiaren epaia argia da. Greba amaierako akordioa indarrean dago, soldatak ordaindu behar dira eta akordioa bete behar da. Kontzeptu guztietan eta behar bezala ez bada ere, adostutako igoerak ordaintzen ari dira eskola askotan. Hala ere, Kristau Eskola patronal nagusiak epaia errekurritzea erabaki du.

Azken Mahai Negoziatzailea urtarrilaren 10ean izan behar zen, baina patronalek bertan behera utzi zuten osasun arrazoiak medio. Jadanik otsailean gaude. Eta Sindikatuak beste data bat jartzeko eskatu eta mobilizazio berriak deitu dituzten arte, ez dute erantzunik izan. Atzo jaso zuten deialdia otsailaren 20rako.

Hau dela eta sindikatuak beraien esku dauden tresna guztiak erabiltzen jarraituko dute akordioaren edukiak betearazteko eta hitzarmenean jasotzeko.

Gaur, otsailaren 6an greba amaierako akordioa sinatu zenetik urte oso bat bete den honetan sektoreko ordezkariak patronal nagusiaren aurrean elkarretaratze zaratatsu bat egin dute. Egoera salatu dute, eta behingoz 22-24 hitzarmena sina dezatela exijitu diote patronal nagusiarri.

Sindikatuak idatzi bat ere erregistratu dute. Kristau Eskolari azken urtean erakutsitako fede txarra eta utzikeria albo batera uzteko eta behingoz greba amaierako akordioa hitzarmenean jasotzeko deia egin diete bertan mahaiko patronalei.

2025eko otsailaren 6an



## **Más de un centenar de delegados y delagadas de centros de enseñanza de Iniciativa Social se han movilizado hoy ante la patronal mayoritaria para exigir la firma del convenio 22-24**

### **Se cumple un año de la firma del acuerdo de fin de huelga y 9.000 trabajadores y trabajadoras siguen sin convenio como consecuencia de la mala fe y dejadez de las patronales**

El acuerdo de fin de huelga fue firmado en la madrugada del 5 al 6 de febrero de 2024 por los sindicatos y las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA. Ha pasado un año desde la firma del acuerdo y 9.000 trabajadores del sector siguen sin convenio. Esto, debido a la mala fe y dejadez de las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA.

Algunas partes del acuerdo se están cumpliendo en algunos centros pero, eso sí, sólo en algunos temas. Sin acuerdo respecto a la formas y tiempos de aplicación. Las patronales obligaron a los sindicatos a acudir a los tribunales para que los y las trabajadoras del sector empezasen a cobrar las subidas salariales pactadas. La sentencia del TSJPV es clara. El acuerdo de fin de huelga está vigente, hay que pagar los salarios y hay que cumplir el acuerdo. Aunque no en todos los conceptos y como es debido, en muchos centros se están pagando las subidas acordadas. Sin embargo, la principal patronal, Kristau Eskola, ha decidido recurrir la sentencia.

La última Mesa Negociadora debía celebrarse el 10 de enero, pero las patronales la suspendieron por motivos de salud. Ya estamos en febrero. La convocatoria no ha llegado hasta que los sindicatos lo han vuelto a exigir expresamente y han convocado nuevas movilizaciones. Ayer remitieron una convocatoria para el 20 de febrero.

Por ello, los sindicatos seguirán utilizando todas las herramientas a su alcance para hacer cumplir y recoger en el convenio los contenidos del acuerdo.

Hoy, cuando se cumple un año desde que se firmó el acuerdo de fin de huelga el pasado 6 de febrero, los representantes del sector han protagonizado una ruidosa concentración ante la patronal mayoritaria. Denuncian la situación y exigen a las patronales que firmen de una vez por todas el convenio 22-24.

Los sindicatos también han registrado un escrito en la sede de Kristau Eskola. Instan a las patronales a dejar de lado la mala fe y la desidia mostrada en el último año y a recoger en el convenio los contenidos del acuerdo de fin de huelga.

6 de febrero de 2025

